

FUNTSEZKO JARDUERAK

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Gure funtsezko jardueren artean, garrantzitsuena gure **bezeroak ondo ezagutzea** izango da, beraiek izango baitira gure proiektuaren existentziaren arrazoia.

Egingo ditugun jarduerak prestatu aurretik, aurrelanketa bat egitea beharrezkoa dela uste dugu. Lehendabizi, ekintzak burutu nahi ditugun herri horien azterketa ezberdinak egingo ditugu: biztanleriak izan ditzakeen behar, gustu edota ohiturak ezagutzeko, izango ditugun baliabideak, erabili ahal izango ditugun espazioak, eskuragarri ditugu baliabide naturalak ezagutzeko. Beraz, herri bakoitzean beharrian desberdinak dauden heinean, gure ekintzak ere beharrian horietara moldatuko ditugu.

Gure proiektua plazaratuko dugun herri bakoitza aztertu ondoren, udaletxeei, herritarren beharretan, **turismo jasangarrian eta planetaren ongizatean oinarritutako jarduera batzuk aurkeztea pentsatu dugu.**

Hasteko, plataforma/sare bat erabiliko dugu non bertan online zerbitzua erabiliko den eta plataforma hau bezero guztiekin harremana izateko eta edozeinen esku izateko sortuko dugu. Aurrez komentatu bezala, hiru zerbitzu ezberdin eskainiko ditugu:

Alde batetik, **takilen alokairua** gure bezeroek eskuragarri edukiko dute. Gure ustez, zerbitzu honen balioa azpimaratu beharra dago, beste zerbitzuengatik bereizten gaituelako. Zerbitzu honetan, proposatutako jarduerak hasi aurretik, bezeroek haien pertenezko usteko aukera izango dute, ibilbidea erosotasun osoz egiteko. Egin behar duten gauza bakarra aplikazioaren bidez takila bat alokatu haien maleta/motxilen tamainaren arabera. Behin leihatila alokatuta daukatenean, lokalera hurbildu eta alokatu duten leihatilan sartu beharko dute beraien motxila/matela edo nahi dutena. Guztia aplikazioaren bitartez egin dezakete, alokatzearen zein ordaintzearen prozesua. Hala ere, lokal berean ordaintzeko aukera ere badago. Takila hauek turisten maletak gordetzeko pentsatuta daude, baina herritarrek ere erabili dezakete: demagun erosketak egin ditugula eta hondartzan bainu bat hartu nahi dugula. Gauzak horrela, erosketak horiek edonork takila hauetan gorde ahal izango ditu

Bestetik, **bizikletak alokatzeko aukera** ere izango dute. Zerbitzu honen erabilera takilen alokairuaren antzekoa izango da, izan ere, aplikaziotik bermatuko baita hauen erabilera. Aplikazioan bizikletak non kokatuta dauden eta zenbat dauden eskuragarri ageriko da. Hemendik ere ordainketa egin beharko da, erabilitako denboraren arabera.

Azkenik, **hozkailu solidariaren** funtzionamenduaren beharra sumatzen dugunez, gure ekintzetaz baliatuko gara hau sustatzeko. Honen erabilera, edozein pertsona edo elkarteek janaria usteko aukeran oinarritzen da. Aplikazioaren bidez, hozkailu bakoitzaren kokapena azaleratuko dugu.

Hiru zerbitzu hauen erabilera aditzera emateko guk proposatutako jarduerataz baliatuko gara. Takilak edota bizikletak alokatzeko aukera egoteaz aparte, zenbait jarduera presente egongo dira, hala nola, **ibilbideak Euskal Herriko kostaldeetatik zehar bizkletekin** eta bestetik, **hilabete bakoitzeko lehen igandeetan txangoak** antolatuko ditugu leku esanguratsuak ezagutu ahal izateko. Hauek, batez ere turistei zuzenduta egongo dira, hala ere, argi dago

edonork parte hartu dezakeela bertan. Batzuetan, ingurukook ez ditugu gure ondoan dauden gauza ugari ezagutzen; eta hauxe egoera aparta izan daiteke inguru hauek deskubritzeko.

Ekintza hauetatik, jendea entretenituta izateaz aparte, kirola eta gizarte jasangarria sustatuko ditugu. Horregatik, kirola sustatzea eta jendearen beharrianak asetzea izango dira gure ekintzen ezaugarri nagusienak.

Honekin batera, jarduera hauetan parte hartzeko, zenbait baldintza edo proposamen betetzea gustatuko litzauguke proiektuak funtziona dezan. Honen kasu, gure bizikletak alokatzea nahitaezkoa da, bestetik, hozkailu solidarioa sustatzeko gustatuko litzauguke prest daudenak, ahal duten neurrian, laguntzea. Noski, nahi izatekotan eskuragarri edukiko dituzte gure takilak, bertan haien motxilak/boltsak sartzeko.

Hauek izango dira hasiera batean proposatuko ditugun jardueretako batzuk, ekintzen harreraren eta arrakastaren mende egongo da guk ekintza batzuk hobetzearen edota gehitzearen auzia. Ondoren, egun oso bat gurekin nolakoa izango litzateke deskribatuko dugu:


● IBILBIDEAK EUSKAL HERRIKO KOSTALDEETATIK ZEHAR BIZIKLETEKIN:

- Gorliz - Plentzia (Bizikletaz egiteko ibilbidea)



Ibilbide hau, Gornitz, Plentzia eta Butroi gaztelua bisitzeko aukera paregabea da. Gorniztik hasiko gara, zehatzago esanda, gure lokala dagoen lekutik, Itsabide kaletik eta hemendik Gornitz ezagutzen hasiko gara. Hortik hasita, Gornizko paseotik itsasargira ailegatzea dugu helburu. Are gehiago, interesgarritzat jotzen dugu boonkerrak erakustea eta ezagutzea. Honekin batera atsedena hartzeko aukera izango dugu. Ondoren, Gornizko paseotik jarraitu eta Plentziara abiatuko gara, non errekatik dagoen paseo batetik jardungo dugun. Plentziako erreka ikusi ahalko dugu baita ontizolak eta haize errota ere. Horrela, Plentziako historiaren berri edukiko dugu. Azkenik, ibilbideari amaiera emateko, Plentziatik, Gandias auzotik abiatuta abiatuta Butroi Gaztelura heldu nahi dugu, Erdi-Aroko gotorleku ikusgarri hau, turistek gozatzeko.

Atsedeneak: Behar beste egongo dira, bezeroen nahien arabera. Baina, guk 3 atsedene proposatuko ditugu: Itsasargian, Plentziako ontziolan eta Plentziatik Butroira arteko zatian beste bat.



- **Sopela - Barrika - Getxo (Bizikletaz egiteko ibilbidea)**



Bigarren ibilbide hau, batez ere, turistek eta bertako herritarrek kostaldeak eskaitzen dituen zenbait hondartza ezagutzeko pentsatuta dago.

Honenbeztez, hurrengo ekintza hau, Sopelako lokalean hasiko da, zehazki esanda Loroño kalean. Ateratzeko prest gauden heinean, Barrikako Hondartzara abiatuko gara (Meñakozeko hondartza). Barrikako, paseotik joanda, Sopelan sartuko gara eta bertako 3 hondartza lasaiak eta zabalak ikusteko aukera edukiko dute gure bezeroek. Lehenengo, Arrieta hondartzara, ondoren, Sopelako hondartzara eta azkenik, Gorrondatxe hondartzara abiatuko gara.

Hondartzatzetaz disfrutatuta eta hauen berri eduki bezain pronto, ibilbide honen azkenengo atalean sartuko gara, Getxon sartzeko momentua ailegatu baita. Azken atal honetan, beheranzko norabidean jarraituko dugu, zementuzko bide on batetik, itsaslabarrera begira, eta inguruko fauna eta ekosistema hantzemateko eta baloratzeko aukerarekin.

Laster Galeako itsasargira iritsiko gara, eta han parke bat dago, banku batzuekin eta iturri batekin, beharrezkoa izango direnak, batez ere egun beroetan, deskantsua han bertan egiteko. Kokagune horretatik, Santurtziko eta Zierbenako portuaren, hots, Nerbioi ibaiaren amaiera osoaren, Serantesen eta Galea lurmuturreko kai-muturraren hondarren ikuspegiez goza dezakegu. Eta gure ibilbidea gure Algortako lokalean (Telletxe kalean) amaituko da. Txango honen bukaeran bi aukera emango dizkiegu bezeroei; batetik, ibilbidearen hasierara berriz berdina eginez bueltatzeko aukera, lekuak sakonago berrikusteko edota gozatzeko. Bestetik, nekatuta egonez gero, bizikletak gure lokalean gordetzeko aukera emango diegu, horrela, gure eguneko jarduerari amaiera emanez. Metroz bueltatu daitezke Sopelara.

Atsedeen uneak: Honetan ere, behar beste egongo dira, bezeroen nahien arabera. Baina, guk 4 atsedeen une proposatuko ditugu: Arrietara hondartzan, Sopelako hondartzan, Gorrondatxe hondartzan eta Aizerrota begiratokian.

